

SORGIN-EHIZTARIA

Izengoitia: MATTERHORN

SORGIN-EHIZTARIA

Urte hartan, tristura eta etsipena ziren nagusi baserrian. Bi egun eta bi gau iraun zuen eurite oldarkor batek uzta erabat hondatu zuenetik inork ez zuen irribarre egiten baserrian. Haiek ziren trumoiak eta tximistak, hura zeruaren haserrea! *"Haran hau sorginduta dago, sorginduta dago!"*, oihukatzen zuten auzokideek atsekabeturik, euren behi eta ardi ernegatuak kortan eutsi ezinda. Izan ere, erauntsiak ez zuen etenik, harik eta bigarren eguna eta bigarren gaua igaro ostean, hirugarren goiza argitu ahala, giroak atertzera jo zuen arte. Triskantza, ordea, erabatekoa izan zen: artasoro suntsituak, gari sail lohituak, sagasti birrinduak... ez zen giro haranean. Nekez izango zuen baserriko nagusiak neguko egun hotzetan ahora eramateko ogia egiteko aukera; eta are gutxiago, eztarria goxatuko zion sagar zuku mirakulutsua ontzeko parada. Ezta kupel bakarra ere.

Baserriko nagusia oso kezkatuta zegoen; izan ere, negua gerturatzen ari zen eta mandioan geroz eta arto eta gari gutxiago zegoen. Gorriak ikusiko zituzten, bai berak eta baita baserriko gainerako kideek ere. Gau askotan, negarrari ezin eutsirik oheratzen zen baserriko nagusia, egoerari irtenbiderik aurkitu ezinda. Lur jota zegoen benetan.

Egun haietako batean, baserriko atea jo zuen norbaitek. *"Kox-kox-kox"*. Atariko zakurrak ozen egiten zuen zaunka. *"Zer ote du orain zakur demonio honek?"*, pentsatu zuen baserriko nagusiak bere golkorako. Atea zabaldu eta gizon handi batekin topo egin zuen parez-pare, egurrezko makil bat eskuan zuela. Itxura benetan zarpaila zuen gizaseme hark: arropa higatuak, abarka lokaztuak eta, batez ere, begirada nekatua, urrundik, oso urrundik, etorri izan balitz bezala.

Bi aldiz pentsatu gabe, baserriko nagusiak ostatu hartzea eskaini zion. Bere txirotasunean, bihotz oneko pertsona baitzen baserriko nagusia, behar duenari laguntza ematen dioten horietakoa. Ordurako gaua ia gainean zutela-eta, baserriko sukaldean zegoen apurrarekin sabela ahal bezala bete, ikuiluko lastairan atsedean hartu eta biharamunean jarraituko zuen bere bidea bidaiariak, halaxe luzatu zion proposamena baserriko nagusiak. Sukaldetik atarira iristen zen usainak eta baserriko epeltasunak erakarririk, baiezkoa eman zion bidaiariak baserriko nagusiari, eta eltze zaharkitua hustu arte ez zuen atsedetik hartu. Nekeak ahuldua, otso batek negu beltzean baino gose handiagoa zuen bidaiari hark iluntze hartan. Atariko zakurraren zaunka hotsak ez zuen etenik, baserriko nagusiak behin eta berriz isil zedin agintzen bazion ere.

"Zerk ekarri zaitu haran honetara, bidaiari?" galdetu zion baserriko nagusiak bidaiariari, honek goilarakada bat ahoratzen zuen bitartean. Eta bidaiariak, ahots sakonaz, ondorengo istorioa kontatu zion:

"Haran honetatik oso-oso urrun dagoen herrixka batean bizi nintzen ni. Herrixka hartatik gertu, kobazulo sakon bat zegoen, munduko sakonena, mendiko txoko batean galduta. Herrixka hartako biztanleok ez ginen kobazulo hartara gerturatzen, kondairak zioenaren arabera kobazulo hura sorginduta omen zegoelako. Herriko zaharrenen hitzetan, gauero-gauero sorginak biltzen ziren kobazuloan, barre eta

dantza, suaren inguruan, birao eta madarikazio artean Akerbeltz gurtu eta herritarron aurkako oihuak jaurtikiz. Gau askotan, herrixkako etxeetako leihoetan katu beltzak zelatan egon ohi ziren herritarrak lotan zeuden bitartean, begirada maltzurrez. Beste batzuetan, berriz, egunsentian baserriren bateko oilategiko atea parez-pare zabalik aurkitzen zuen baserri hartako nagusiak, eta oilategia, hutsik, ez oilo eta ez txita.

Egun batean, herrixkako biztanle guztiok plazan bildu eta kobazulo hartara joatea erabaki genuen, harriz eta geziz ondo hornituak, ezkutaleku hartan gordetzen ziren sorginekin behin-betiko amaitzeko asmoz. Auskalo, ordea, zer aurkituko genuen bertan. Elkarrengandik aldendu gabe, kobazuloaren sarrerara gerturatu ginen. Iluntasuna zen bertan nagusi, eta suziriak piztu genituen poliki-poliki barrura sartu ahala. Isiltasuna ia erabatekoa zen, gure oin hotsak baitziren, izan, entzun zitekeen hots bakarra.

Bat-batean, harrabots izugarri batek urratu zuen isiltasuna. "Sasi guztien gainetik, hodei guztien azpitik!". Herritar izutuok urrats bat atzera egin genuen, harriak eta geziak eskuetan, oihu ozen hark kikildurik. Kobazuloaren erraietatik, sugar erraldoi bat zetorrela ikusi genuen eta korrika bizian, kobazuloaren sarrerara abiatu ginen, suaren berotasuna bizkarrean sentituz. Ausartenek, harri eta geziren bat jaurtitzen asmatu zuten anabasa hartan, baina aurkaria nor zen ere ez zegoen oso argi, sugarra eta argitasun itsugarri bat baino ez baitziren bertan ikusten. Neronek, sekula ausartegia izan ez banaiz ere, korrika egiteari utzi eta barruko indar batek hala aginduta buelta erdi eman nuen, sugar erraldoi hari parez-pare begiratu. Katu beltzak, emakume itxurako sorginak, azeri burudun izakiak... guztiak bat egiten zuten sugar erraldoi hartan. Akerbeltz bera ere tartean zen, egoerak beharturik kobazulo hartara infernutik propio jaitsia. Kobazuloaren kanpotik etorritako haize erauntsi batek xurgatu izan balu bezala, bere horretan amatatu zen sugarra, leundu harrabotsa, ezkutatu Akerbeltz, katu beltzak, sorginak eta azeri burudun izakiak. Isiltasun ia erabatekoa itzuli zen berriro kobazulo hartara. Haserako pauso hotsen ordez nire bihotzeko taupaden hotsa zen kobazuloan entzun zitekeen hots bakarra, norbaitek makilaz danbor zaratatsu bat kolpatuko balu bezala.

Gertakari haren ondotik, herrixka hartako herritarrok ez ginen berriro kobazulora itzuli. Hala ere, sorginak inguru hartan egoteaz aspertu eta beste norabait aldegin zuten, ez baigenuen gehiago katu beltzik zelatan ikusi etxeetako leihoetan, ezta egunsentian oilategietako atea zabalik aurkitu ere, barrualdeak oiloz eta txitaz erabat hustuak. Kobazulo hartara egin genuen bisita hark uxatu balitu bezala, desagertu egin ziren sorginak gure artetik. Zaharrenek diote nire ausardia keinu hark uxatu zituela sorgin guztiak kobazulotik, dohai bereziak ditudala sorginei eta sorginkeriei aurre egiteko, "hi haiz sorgin-ehiztaria, madarikazioei aurre egiteko ahalmena duen gizaseme bakarra", errepikatzen zidaten herriko zaharrenek. Hala zioten haiek, kobazulo hartatik sortu zirela munduko sorgin guztiak, kobazulo hura zela sorginen gotorleku bakarra, eta gaur egun han eta hemen barreiatu daudela, barrabaskeriak egiten, gertakizun hura jazo zenetik. Eta nik, sorginen arrastoari segika, munduan zehar bidaiatzeari ekin nion, nire patua hura zelaitsu-itsusinetsita, sorginen aurkako dohai eta botere apartekoen jabe nintzelakoan, beste haran eta herrixka bateko biztanleak ohartarazi eta sorginei aurre egiten laguntzeko. Oraingoan, honaino ekarri nau nire ehiztari senak, baserriko nagusi,

haran honetaraino, orain dela gutxi izan duzuen erauntsia ez baita ziur aski naturaren zigorra izan, inguru honetara ailegatu diren sorginen madarikazioaren ondorio bat baizik."

Harri eta zur geratu zen baserriko nagusia bidaiariaren kontaketa arretaz entzun ostean. Sekula ez zuen sinetsi sorginak izan bazirenik, hamaika kondaira entzundakoa bazen ere. Haranean jasandako erauntsia naturaren haserreari egozten zion baserriko nagusiak, ingurura hurbildutako sorginen madarikazioari baino. Litekeena zen, ordea, bidaiariak esandakoa egia izatea. Baserriko leihoetan katu beltzik izango al zen gauetan zelatan? Horrelakorik ikusi gabea zen baserriko nagusia, baina horrek ez zuen esan nahi gertatzen ez zenik...

Gau nahasia pasa zuen baserriko nagusiak: lokartzea dexente kostatzen zitzaion eta behin loaren hatzaparretan eroria, amesgaiztoz-amesgaizto igaro zuen loaldi guztia. Oihuak entzun uste izan zituen, algarak, biraoak, kolpeak, otsoen uluak eta zakurren zaunkak. Kolpetik esnatu zen, izerdi patsetan, eta bere inguruan erabateko isiltasuna zen nagusi, leihotik zetorren haizearen ufada ahulak salbu. Ez zuen leioa irekita utzi izana gogoratzen, beti ixten baitzuen arreta handiz oheratu aurretik. Ohatzetik altxa eta leihora hurbildu zen. Azken egunetan harana estali zuen lainotzaren arrastorik ez zen, eta aspaldiko partez izarrak ikusteko aukera izan zuen gauaren iluntasunean. Haranean arnasten zen gaugiro paregabeak lasaiturik, ohera itzuli zen egunsentia iritsi arteko orduetan lo lasaiagoa egiteko itxaropenez.

Biharamunean, gelako leihotik lehenengo eguzki izpia sartu aurretik, sukaldera jaitsi zen baserriko nagusia, bidaiaria esnatzerako gosaria prest edukitzeko asmoz. Sorgin-ehiztariak bide luzea zeukan aurretik, eta ez zuen baserriko nagusiak bisitaria gosez abiatzerik nahi. Ez zen, ordea, ikuilutik bidaiaririk sukalderatzen, eta baserriko nagusia arduratuta ikuilura gerturatu zenean, han inor ere ez zegoela ikusi zuen. Lastaira hutsik zegoen, eta ez zegoen bidaiariaren arrastorik. Baserria goitik-behera arakatu zuen eta ez zen bertan sorgin-ehiztaririk ageri. Mandioa, hori bai, artoz eta gariz gainezka zegoen, aurrez sekula ez bezala. Mandioko leihora hurbildu eta ortzimugara luzatu zuen begirada baserriko nagusiak. Sorgin-ehiztariak bere lan mirakulutsua burutu zuen haranean, eta bere bidea segiko zuen ziurrenik, beste haran batzuetara, sorgin-ehiza amaigabea murgildurik.